

Kalejira

9. KOSTU-EGITURAK

Gure enpresak hainbat kostu ditu. Alde batetik kostu finkoak ditugu, guk hilean behin ordaindu behar ditugunak, hauek gutxi gorabehera beti kopuru finkoa dute.

Hauetan lokala bera alokatzea sartzen da, gure jarduerak aurrera eramateko ezinbestekoa dena. Lokala ez da soilik jarduera eta klaseak egiteko erabiliko, baizik eta sukaldea, biltegia eta bulegoak ere bertan egongo dira, beraz, honek gure kostu finkoen zati handi bat osatzen du.

Horretaz gain, kostu finkoetan zergak sartzen dira ere, hau da, estatuari ordaindu behar dizkiogun kuotak, hilean behin ordaindu behar direnak eta beti kopuru bera dute.

Gainera, irakasleen soldatak gure gastuetan garrantzi handi dute ere baina ez da berdina izango irakasle guztien artean, jarduera ezberdinak eta egun kopuru desberdinak egingo dituztelako lan. Adibidez, hilabete batean jarduera jakin bat eskaini dezakegu eta hurrengoan ez, beraz, irakasleen ordainsaria aldatu egingo da hilabetetik hilabetera. Gainera, lan bakoitzaren exijentzia eta aurretik egindako ikasketa mailak, soldata kopurua aldatuko du.

Beste aldetik, kostu aldakorra. Antolatuko ditugun hitzaldiak, bidaiak edo aliantzekin egindako hitzarmenak eta akordioak aldatu egin daitezke denboran zehar, eta horrekin batera prezioak. Horrez gain, materialaren kostua aldakorra da: sukaldeko produktuak eta kirolekoak izan ere. Hilabetero material ezberdinak behar ditugu eta horren kostua aldatzen joaten da beharren arabera.

Horrela, gure enpresak dituen kostu guztiak kontuan hartuta, lokalaren alokairua da handiena, baina kostu finko eta aldakorrek ere garrantzitsuak dira gure eguneroko jarduerak aurrera eramateko.